



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2023ko martxoaren 28koa, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzarako deialdia ebazten duena.

Hezkuntza sailburuaren 2022ko abenduaren 27ko Aginduaren bidez, urtarrilaren 4ko 3 zbk. EHAA, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzarako deialdia egin zen. Agindu horren 10. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

### E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak.

Bigarrena.- II. eranskinean jasota agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Hirugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 28a

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA